La Red española de Teatros, Auditorios, Circuitos y Festivales de titularidad pública

# MANIFESTUA

20 urte

Titulartasun Publikoko Antzoki, Auditorium, Zirkuitu eta Jaialdien Espainiako Sarea (La Red) 2000. urteko otsailaren 9an sortu zen. 2020. urtean, La Red erakundeak 162 bazkide ditu eta emanaldi eszenikoetarako 800 espazio publiko baino gehiago biltzen ditu.

Hogei urte hauetan, Arte Eszenikoen arloko ekinbidea koordinatzeko funtsezko tresna bihurtu da La Red erakundea, eta sistema osoa indartzeko ere gakoa izan da, antzoki publikoak Estatu osoko jarduera eszenikoaren “traktore” ekonomiko diren aldetik.

La Red erakundeari esker, bazkideen arteko komunikazioa eta lankidetza egon da, baita sektorearekin ere; informazioko, ikerketako eta prestakuntzako espazioak ez ezik, Arte Eszenikoen arazo estrategikoei buruzko eztabaidarako eta hausnarketarako esparruak ere sortu dira; eta herritarrek kulturaren arlo hori eskurago izatea lortu da.

Horregatik guztiagatik, La Red erakundeko bazkideen eta ordezkatzen ditugun profesionalen ustez, elkarte modura sortu ginenetik hogei urte igaro diren honetan, metatutako esperientzian eta bildutako jakintza kolektiboan oinarrituta, publikoki adierazi behar dugu antzoki publikoek datozen urteotako erronkei aurre egin ahal izateko gakoei buruzko geure ikuspegia zein den, herritarrentzat kultura, oro har, eta Arte Eszenikoak, zehazki, eskura egongo direla bermatzeko.

Zentzu horretan, honako hau ADIERAZTEN DUGU:

**1.-** Arte Eszenikoak interes orokorreko ondasun direla eta botere publikoek herritar guztiei bermatu behar dietela Arte Eszenikoak eskura izateko aukera, baldintza berdinetan, hezkuntzaren kasuan bezalaxe.

**2.-** Gaur egun eta etorkizunean, kalitatezko Arte Eszenikoak eskura izateko aukera bermatze aldera, kultura proiektu garrantzitsuak garatzera bideratu behar dela gure eredua, lan egiten dugun komunitateetatik, komunitate horien bitartez eta komunitate horietarako bultzatuta.

**3.-** Arlo honetan, Europan arrakasta gehien izan duten ereduei erreparatuta, autonomia handia duten erakundeen eredu baterantz bideratu behar dugula, gizarte zibilak erakunde horien erabaki organoetan parte hartuta eta jardunbide egokien kode baten arabera gobernatzen diren erakundeak izanik.

**4.-** Europako esperientzia horren arabera, Arte Eszenikoen proiektuak epe ertain eta luzera begira garatu behar direla, eta kudeaketako emaitza sendoak lortzeko ezinbesteko baldintza dela hori.

**5.-** Kultura zerbitzu eta ondasun artisauak kudeatzen ditugula, eta ez dutela zerikusi handirik etekin ekonomikoa lortzea xede duen trafiko ekonomiko arruntarekin.

**6.-** Kezkagarria dela, azken urteotan, legegintzan berezitasun hori ahaztu izana, eta produkzio artistikoa eta emanaldiak beste edozein sektoreren parekotzat hartu izana. Izan ere, horrek prekarietatea sistema osoan areagotzea eragin baitu.

**7.-** Premiazkoa dela sektoreari buruzko politikak, oro har, berraztertzea, eta arau esparrua sektorearen berezitasunetara egokitzea; izan ere, ezinbesteko baldintza baitira horiek gure jarduera babesteko eta sustatzeko, gure herrialdea Europako kultura politikekin bat etortzeko gako jarduera den aldetik.

**8.-** Arte Eszenikoek babestutako kultura ondare izan behar dutela, baita zergei dagokienez ere, liburuen antzera; horregatik, Arte Eszenikoak sustatzeko eta indartzeko neurri eraginkor bat aldarrikatzen dugu: ikuskizunen kontratazioak BEZ murriztua izatea.

**9.-** Kulturan bikaintasuna babestu eta sustatu behar dugula. Gure eginbeharra da Arte Eszenikoak eskura izateko herritarren aukera unibertsala sustatzea, gure lana zerbitzu publikotzat hartuta, helburu sozial eta kulturalak dituen zerbitzutzat.

**10.-** Gure kudeaketaren eraginkortasuna ebaluatzeko irizpideek ezin dutela parametro ekonomikoetan soilik oinarritu, eta ez direla parametro ekonomikoetan soilik oinarritu behar.

**11.-** Gure garaiko erronka garrantzitsuez jabetzen garela. Zentzu horretan, inklusioa eta berdintasuna zeharkako ardatz moduan txertatu behar ditugu antzoki publikoetako jarduera guztietan, herritarren oinarrizko eskubide diren aldetik eta gu herritarren zerbitzura gauden aldetik.

**12.-** Artearekin gozatzea gizartea aldatu eta eraldatuko duen motor bihurtzea nahi dugula, herritar aktibo eta kritikoak sortzeko lagungarri den heinean. Gure lana herritarren balio, itxaropen eta erronkei buruzko elkarrizketa sozialera bideratu behar dugu.

**13.-** Sorkuntza prozesuak ahalbidetu behar ditugula; horretarako, berariazko baliabide nahikoak izan behar dira.

**14.-** Hezkuntzaren alderdia arlo iraunkor eta estrategikotzat txertatu behar dela Arte Eszenikoetako espazio publikoen kudeaketan. Horrela, bada, datozen urteotan funtsezkoak izango dira arlo hauek: hezkuntza sistemarekin harreman estua izatea, bitartekaritza artistikoko programak txertatzea, eta hezkuntza ekintzaren zeharkakotasuna.

**15.-** Profesionaltasun kualifikatua eta prestakuntza jarraitua funtsezko osagai direla gure espazioen kudeaketan, alderdi teknikoari, administratiboari eta komunikazioari dagokienez, eta gure espazio horien kapital handiena pertsonak direla.

**16.-** La Red erakundeak gomendatzen dituen ikuskizunen bitartez, antzoki publikoei lagundu egingo zaiela programa artistiko hobea eskaintzen eta gizartearen eskaera berrietara egokitzen.

**17.-** Arte Eszenikoetako eragile guztien arteko elkarrizketa iraunkorra eta antolatua sustatzen jarraituko duela La Red erakundeak, sektorearen garapenari laguntzearren eta Espainiako ekosistema eszenikoan nagusitasuna lortzearren.

**18.-** Espazio eszeniko publikoak garen aldetik, topagune eta berdinen arteko jakintza eta esperientziak elkartrukatzeko gune garela, tokiko, nazioko eta nazioarteko mailan, eta sektorearen nazioartekotzea eta beste foro batzuetan dugun presentzia indartzen ditugula, batik bat, foro europar eta iberoamerikarretan.

**19.-** Gure kudeaketa Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren helburuetara egokitu behar dugula, eta Agenda horren edukiak eta oinarri dituen balioak ezagutarazi behar ditugula.

**20.-** Titulartasun Publikoko Antzoki, Auditorium, Zirkuitu eta Jaialdien Espainiako Sareak (La Red) goian adierazitako asmo horiek garatzeko lagungarri diren neurri, foro eta programa guztiak bultzatuko dituela, eta helburu horiek gure herriko Arte Eszenikoetako gainerako elkarteekin partekatzeko prest gaudela, betiere ordezkatzen dugun interes publikoaren zerbitzura.

**ANDALUCÍA** GRAN TEATRO FALLA DE CÁDIZ/ GRAN TEATRO DE CÓRDOBA/ TEATRO CERVANTES DE MÁLAGA / TEATRO ALAMEDA Y TEATRO LOPE DE VEGA DE SEVILLA / TEATRO AUD. ROQUETAS DE MAR / RED ANDALUZA DE TEATROS PÚBLICOS / TEATRO MUNICIPAL, TEATRO AUD. Y FESTIVAL DE TEATRO DE EL EJIDO / TEATRO ALHAMBRA DE GRANADA / TEATRO CÁNOVAS DE MÁLAGA / TEATRO CENTRAL DE SEVILLA/ FESTIVAL DE TEATRO Y DANZA CASTILLO DE NIEBLA / AUDITORIO MUNICIPAL DE LUCENA / TEATRO EL SILO DE POZOBLANCO / AUDITORIO MUNICIPAL AL AIRE LIBRE "FINCA EL PORTÓN" DE ALHAURÍN DE LA TORRE / C.C. PROVINCIAL MARÍA VICTORIA ATENCIA DE MÁLAGA / TEATRO MUNICIPAL DE ÉCIJA **ARAGÓN** TEATRO PRINCIPAL DE ZARAGOZA / AUDITORIO PALACIO DE CONGRESOS DE JACA **ASTURIAS** UDITORIO C.C. MUNICIPAL DE CULTURA Y TEATRO PALACIO VALDÉS DE AVILÉS / TEATRO CAMPOAMOR DE OVIEDO / TEATRO JOVELLANOS DE GIJÓN / TEATRO DE LA LABORAL DE GIJÓN / AUDITORIO CENTRO NIEMEYER DE AVILÉS/ VALEY C.C. DE CASTRILLÓN **COMUNIDAD VALENCIANA** TEATRO PRINCIPAL DE ALICANTE / PALAU DE LA MÚSICA Y CONGRESOS DE VALENCIA / TEATRO CASTELAR DE ELDA / TEATRO CHAPÍ DE VILLENA/ DANSA VALENCIA / TEATRO ARNICHES DE ALICANTE / CIRCUIT CULTURAL VALENCIÀ / TEATRE PRINCIPAL DE VALENCIA / GRAN TEATRE ANTONIO FERRANDIS DE PATERNA / GRAN TEATRO DE ELCHE / C.C. SALVADOR MIRÓ DE IBI / GRAN TEATRE DE XÁTIVA / AUDITORI DE CALPE - C.C. JAUME PASTOR I FLUIXÀ / AUDITORI RIBARROJA / MOSTRA DE TEATRE Y TEATRE CALDERÓN DE ALCOI / PARANIMF DE LA UNIVERSITAT JAUME I DE CASTELLÓ / C.C. DE L'ALFÀS DEL PI / AUDITORI LA MUTANT Y TEATRE EL MUSICAL DE VALENCIA / C.C. DE ALMASSORA / TEATRO MUNICIPAL DE TORREVIEJA **CANTABRIA** PALACIO DE FESTIVALES DE CANTABRIA **CASTILLA-LA MANCHA** TEATRO MUNICIPAL QUIJANO DE CIUDAD REAL / TEATRO AUD. DE CUENCA / TEATRO DE ROJAS DE TOLEDO / TEATRO PALENQUE Y TEATRO VICTORIA DE TALAVERA DE LA REINA / TEATRO BUERO VALLEJO DE GUADALAJARA / CONSORCIO CULTURAL ALBACETE / RED DE ARTES ESCÉNICAS Y MUSICALES DE CASTILLA-LA MANCHA / TEATRO PRINCIPAL Y TEATRO REGIO DE ALMANSA / AUDITORIO BOLAÑOS DE CALATRAVA / FESTIVAL INTERNACIONAL DE TEATRO CLÁSICO DE ALMAGRO / PATIO DE COMEDIAS DE TORRALBA DE CALATRAVA **CASTILLA Y LEÓN** TEATRO PRINCIPAL DE BURGOS / TEATRO MUNICIPAL BERGIDUM DE PONFERRADA / C.C. PALACIO DE LA AUDIENCIA DE SORIA / TEATRO JUAN BRAVO DE SEGOVIA / TEATRO CALDERÓN DE LA BARCA DE VALLADOLID / RED DE TEATROS DE CASTILLA Y LEÓN / TEATRO PRINCIPAL DE PALENCIA / AUDITORIO MUNICIPAL DE MEDINA DEL CAMPO / C. DE CONGRESOS Y EXPOSICIONES LIENZO NORTE DE ÁVILA / LABORATORIO DE LAS ARTES DE VALLADOLID (LAVA) / TEATRO CASA DE LAS ARTES DE LAGUNA DE DUERO / TEATRO REINA SOFÍA DE BENAVENTE / TEATRO MUNICIPAL DE LA BAÑEZA / AUDITORIO CIUDAD DE LEÓN **CATALUÑA** MERCAT DE LES FLORS / TEATRE MUNICIPAL DE GIRONA / TEATRE-AUD. SANT CUGAT / TEATRE NACIONAL DE CATALUNYA / OFICINA DE DIFUSIÓ ARTÍSTICA (DIPUTACIÓ DE BARCELONA) / TEATRE LLIURE / TEATRE FORTUNY DE REUS / MERCAT DE MÚSICA VIVA DE VIC / SUBDIRECCIÓ GENERAL DE PROMOCIÓ CULTURAL (GENERALITAT DE CATALUNYA) / TEATRE MUNICIPAL ALEGRÍA Y TEATRE PRINCIPAL DE TERRASSA / FESTIVAL INT. TEATRE I ANIMACIÓ Y AUDITORI ATRIUM VILADECANS **CEUTA** TEATRO AUD. DE REVELLÍN **COMUNIDAD DE MADRID** TEATRO SALÓN CERVANTES Y FESTIVAL "CLÁSICOS EN ALCALÁ" DE ALCALÁ DE HENARES/ CORRAL DE COMEDIAS DE ALCALÁ DE HENARES / TEATRO AUD. CIUDAD DE ALCOBENDAS /

TEATRO AUD. FEDERICO GARCÍA LORCA DE GETAFE / TEATRO AUD. ADOLFO MARSILLACH DE SAN SEBASTIÁN DE LOS REYES / RED DE TEATROS DE LA COMUNIDAD DE MADRID / TEATRO JOSÉ MONLEÓN - C.C. JOSÉ SARAMAGO, TEATRO JULIÁN BESTEIRO, TEATRO RIGOBERTA MENCHÚ / TEATRO FRANCISCO RABAL DE PINTO / C.C. LA DESPERNADA DE VILLANUEVA DE LA CAÑADA / TEATRO DE LA ABADÍA / AUDITORIO PILAR BARDEM DE RIVAS / TEATRO TOMÁS Y VALIENTE DE FUENLABRADA / AUDITORIO MONTSERRAT CABALLÉ DE ARGANDA DEL REY / TEATRO FEDERICO GARCÍA LORCA DE SAN FERNANDO DE HENARES / TEATRO DEL BOSQUE DE MÓSTOLES / AUDITORIO VILLA DE COLMENAR VIEJO / C.C. SANCHINARRO / TEATROS DEL CANAL DE MADRID / TEATRO CIRCO PRICE DE MADRID / C.C. FERNÁN GÓMEZ / C.C. CONDE DUQUE **EXTREMADURA** TEATRO LÓPEZ DE AYALA DE BADAJOZ / GRAN TEATRO Y FESTIVAL DE TEATRO CLÁSICO DE CÁCERES / FESTIVAL INT. DE TEATRO CLÁSICO DE MÉRIDA / RED DE TEATROS DE EXTREMADURA / TEATRO NUEVO CALDERÓN DE MONTIJO **GALICIA** TEATRO ROSALÍA CASTRO DE A CORUÑA/ REDE GALEGA DE TEATROS E AUDITORIOS AGADIC / TEATRO PRINCIPAL DE OURENSE / AUDITORIO MUNICIPAL Y PAZO DA CULTURA DE NARÓN / AUDITORIO-PAZO DE CONGRESOS MUNICIPAL DE OURENSE / TEATRO JOFRE DE FERROL / AUDITORIO DE GALICIA / TEATRO PRINCIPAL DE SANTIAGO DE COMPOSTELA / TEATRO COLÓN DE A CORUÑA / PAZO DA CULTURA Y FEST. DAS NUBEBES DE PONTEVEDRA / AUDITORIO DE VIGO / AUDITORIO Y FIOT DE CARBALLO **BALEARES** ESPAI CULTURAL CAN VENTOSA / TEATRE PRINCIPAL DE MAÓ / AUDITORIO DE CAS SERRES / PALACIO DE CONGRESOS, TEATRO ESPAÑA Y FEST. BARRUGUET DE TEATRO FAMILIAR DE SANTA EULÀRIA DES RIU / TEATRE PRINCIPAL DE PALMA **CANARIAS** TEATRO PÉREZ GALDÓS Y AUDITORIO ALFREDO KRAUS DE LAS PALMAS/ TEATRO GUIMERÁ DE STA. CRUZ DE TENERIFE / CIRCUITO DE ISLAS (CANARIAS) DE MÚSICA, TEATRO Y DANZA / TEATRO CUYÁS DE LAS PALMAS / AUDITORIO DE TENERIFE “ADÁN MARTÍN” / TEATRO CHICO DE STA. CRUZ DE TENERIFE / TENERIFE ARTES ESCÉNICAS / TEATRO LEAL DE LA LAGUNA / AUDITORIO INFANTA LEONOR DE STA. CRUZ DE TENERIFE / TEATRO CRUCE DE CULTURAS Y TEATRO AUDITORIO AGÜIMES / AUDITORIO DE TEROR / FESTIVAL INT. DE ARTE EN LA CALLE DE MUECA / TEATRO GUINIGUADA DE LAS PALMAS / AUDITORIO INSULAR FUERTEVENTURA / C.C. DE CARRIZAL INGENIO / TEMUDAS FEST DE LAS PALMAS **LA RIOJA** TEATRO BRETÓN DE LOS HERREROS DE LOGROÑO / TEATRO CERVANTES DE ARNEDO / C.C. DEÁN PALACIOS - TEATRO IDEAL DE CALAHORRA **MELILLA** TEATRO KURSAAL DE MELILLA **NAVARRA** TEATRO GAYARRE DE PAMPLONA / BALUARTE, PALACIO DE CONGRESOS Y AUDITORIO DE NAVARRA / FESTIVAL DE TEATRO CLÁSICO DE OLITE / CIRCUITO DE ARTES ESCÉNICAS DE NAVARRA / RED DE TEATROS DE NAVARRA / BARAÑÁIN AUDITORIOA **PAÍS VASCO** BARAKALDO ANTZOKIA / C.C. EGIA, PRINCIPAL ANTZOKIA Y VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA DE DONOSTIA / SERANTES KULTUR ARETOA DE SANTURTZI / PRINCIPAL ANTZOKIA Y FESTIVAL INT. DE TEATRO DE VITORIA-GASTEIZ / SAREA (RED VASCA DE TEATROS) / MUXIKEBARRI DE GETXO / SOCIAL ANTZOKIA DE BASAURI / CENTRO KURSAAL DE DONOSTIA/ KULTUR LEIOA-AUDITORIUM / AZKUNA ZENTROA DE BILBAO / COLISEO ANTZOKIA DE EIBAR **REGIÓN DE MURCIA** NUEVO TEATRO CIRCO DE CARTAGENA / AUDITORIO Y CENTRO DE CONGRESOS VÍCTOR VILLEGAS DE MURCIA / TEATRO CONCHA SEGURA DE YECLA / TEATRO CIRCO, TEATRO ROMEA Y TEATRO BERNAL DE MURCIA / TEATRO VILLA DE MOLINA DE MOLINA DE SEGURA / TEATRO VICO DE JUMILLA / PALACIO DE CONGRESOS ‘INFANTA DOÑA ELENA’ DE ÁGUILAS

# 20 URTE ARTE ESZENIKOAK INDARTZEKO LAN EGITEN




La Red española de Teatros, Auditorios, Circuitos y Festivales de titularidad pública

20 años

GOBIERNO DE ESPAÑA · MINISTERIO DE CULTURA Y DEPORTE · inaem INSTITUTO NACIONAL DE LAS ARTES ESCÉNICAS Y DE LA MÚSICA

**Koordinazio Bulegoa**

C/ Carretas, 14, 8º F

28012, Madrid **T** 91 548 95 60

***www.redescena.net*** redteatros@redescena.net

redescena @LaRed_deTeatros @redescena